



Delituak prebenitzeko politika (COMPLIANCE PENALA)

2023ko uztaila



Dokumentu hau irisgarritasun-irizpideen arabera diseinatu da, eta bereziki dago baliabide digitalen bidez bistaratzeko pentsatuta.



Mutualia, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutua

Henao kalea 26,

48009 Bilbo

Telefono-zenbakia: 94 4252500

www.mutualia.eus

Informazio gehiagorako, posta elektroniko bidez jar zaitezke gurekin
harremanetan: dircom@mutualia.es

Aurkibidea:

1. Sarrera. aplikatu beharreko araudia.	4
2. Zigor-arloko prebentzio-eredua.	5
3. Jarduera-eremua.	7
4. Helburuak.	7
5. Onespen-taula eta berrikuspenak.	9

1. SARRERA. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

Ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoaren bidez Espainiako Zigor Kodean egindako erreformaren ondorioz (2010eko abenduaren 23an sartu zen indarrean), pertsona juridikoaren erantzukizun penala sartu zen Espainiako ordenamendu juridikoan, eta erantzukizun hori eska daiteke alde batera utzita ustezko legez kontrako jokabideak izan dituen edo egin dituen pertsona fisikoa identifikatu edo indibidualizatu den.

Pertsona juridikoaren erantzukizun penala honako premisa hauetan oinarritzen da:

- (i) izatezko edo zuzenbidezko lege-ordezkaria edo administratzailea (kudeatzailea) pertsona juridikoaren izenean eta haren kontura eta haren proiektuan jardun izana eta, bestela,
- (i) langileen eginkizunetan behar bezalako kontrolik ez eduki izana, baldin eta ez-zilegi penala pertsona juridikoaren izenean eta haren onurarako egiten bada.

Era berean, tartean diren pertsona fisikoentzat hainbat zigor eratorriko dira, kalte pertsonal larriak ekar ditzaketenak, hala nola askatasunaz gabetzeko zigorra, irudi- eta ospe-kalteak, eta zigor ekonomikoak. Zigor horiek MUTUALIAko langileak jaso ahal izango ditu bere izenean, mutua alde batera utzita.

Ondoren, Zigor Kodeak beste erreforma bat jasan zuen 2015eko uztailaren 1etik indarrean dagoen 1/2015 Lege Organikoarekin. Erreforma berri horrek hobetu egin zuen pertsona juridikoen erantzukizun penala arautzeko teknika, "behar bezalako kontrola"ren edukia ondo mugatzeko, ulertuta enpresako langileen gaineko ikuskapen-betebeharraren ez-betetze larri gisa, urratzeak erantzukizun penala oinarritzeko aukera ematen duela.

Zigor Kodeak aurreikusten du ezen, pertsona juridikoak delituak egiteko arriskua murrizten duen PREBENTZIO-PROGRAMA bat eta ezaugarri jakin batzuk dituen prebentzio-programa ikuskatzeko organo bat baditu, erantzukizun penaletik salbuetsita geratzeko dela. Erreformak, gainera, erantzukizun penala izan dezaketen subjektuak eta erantzukizun penala edo zigorren sistema aktiba dezaketen delitu zehatzak azpimarratzen ditu, eta arlo horretako erregulazio oso bat ezartzen du.

Ondoren, Zigor Kodearen hainbat erreforma argitaratu dira eragina izan dutenak pertsona juridikoek egin ditzaketen tipo penalen zerrendan eta, ondorioz, delituak prebenitzeko programen prebentzio-neurrietan.

Bestalde, MUTUALIA Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutuak (aurrerantzean, "Mutualia", "mutua" edo "entitatea"), KODE ETIKO bat onetsita dauka, zeinak erakundearen XEDEAN, MISIOAN eta BALIOETAN jasotako printzipioak garatzen baititu. Printzipio horiek gidatzen dute MUTUALIAren betebeharreko subjektu guztien jarduna eta jokabide etiko eta arduratsua dagokien jardueraren garapenean eta erabakiak hartzean, eta, aldi berean, JOKABIDE PROFESIONALARI BURUZKO ARAU OROKORRETAN garatzen dira. Haiek betetzen direla bermatzeko, Betetze Korporatiboko Batzorde baten etengabeko existentzia jasotzen da, zeinak, era berean, antolamendu- eta kudeaketa-ereduaren eraginkortasuna bermatzen baitu.

Ondoren, 2/2023 Legea argitaratu zen, otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babestea arautzen duena (2023/02/21eko BOE). Horren arabera, MUTUALIAk, erakunde betebehardun gisa, INFORMATZAILEA INFORMATZEKO ETA DEFENDATZEKO BARNE-SISTEMA bat izan behar du (5. art.) eta, horren barruan, INFORMAZIORAKO BARNE KANAL bat, horren bidez informazioa eman ahal izateko (2.1 b) eta 7. art.) arau-hauste penala izan daitezkeen ekintzei edo ezegitei buruz (besteak beste). (Kasu guztietan, barne hartuko dira Ogasun Publikoari eta Gizarte Segurantzari galera ekonomikoa eragiten dioten arau-hauste penal guztiak). 7.1 artikuluen arabera, erakunde batek 2. artikuluan aurreikusitako arau-hausteei buruzko informazioa aurkeztu ahal izateko duen barne-kanal oro 5. artikuluan adierazitako barne-informazioko sistemaren barruan egongo da.

2/2023 legea betez, Mutualiako Zuzendaritza Batzordeak barneko informazio-sistemaren eta informatzaileak babesteko sistemaren politika onetsi zuen 2023ko maiatzean. Politika horren arabera, sistemaren arduraduna erakundearen BETETZE BATZORDEA da (aurreko Betetze Batzorde Korporatiboaren ondorengoa).

DELITUAK PREBENITZEKO POLITIKA HONEK (aurrerantzean *Politika*) haren edukia ezagutzeko eta betetzeko beharra ezartzen die Mutualiako gobernu- eta partaidetza-organoetako kide eta ordezkari diren pertsona fisiko guztiei —edozein dela ere haien maila hierarkikoa, kokapena eta funtzioak—, baita enplegatu guztiei ere.

Ondorio horietarako, goi-zuzendaritzako langiletzat hartuko dira Zuzendaritza Batzordeko eta/edo Kudeaketaren Jarraipen Batzordeko kideak.

Mutualiaren izenean eta hura ordezkatzuz diharduten hirugarrenei ere badagokie POLITIKA hori.

2. ZIGOR-ARLOKO PREBENTZIO-EREDUA.

MUTUALIAren Delituak Prebenitzeko Ereduaren elementu nagusiak hauek dira:

- i. Ekimen- eta kontrol-ahalmen autonomoak dituen organo bat (Mutualiako “Betetze Batzordeak” ere beteko ditu haren eginkizunak), ezarritako prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betetzea gainbegiratzeko.
- ii. Prebenitu behar diren delituak MUTUALIAren zer jarduera-eremuren barruan egin daitezkeen identifikatzea.
- iii. Pertsona juridikoaren borondatea eratzeko, erabakiak hartzeko eta erabakiak betearazteko prozesua zehaztuko duten antolamendu-neurriak eta prozedurak ezartzea.
- iv. Edozein interes-gatazkaren aurrean jarduteko prozedurak eta jarraibideak.
- v. Prebenitu beharreko delituak egitea eragozteko baliabide egokiak izatea.

- vi. Barneko informazio-kanalaren bidez balizko arriskuen eta ez-betetzeen berri emateko betebeharra, Betetze Batzordeak kudea ditzan, prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betetzea zaintzeko ardura duen kide anitzeko barne-organoa den aldetik.
- vii. Barneko informazio-kanal bat egotea komunikatzeko eta salatzeke, balizko ez-zilegi penalak detektatzeko eta komunikatzeko eta/edo ustez ez-zilegi penala diren gertakariei buruzko agintari polizialen/judizialen errekerimenduak/komunikazioak egiteko;
- viii. Barneko ez-betetzeen aurrean jardungo duen diziiplina-araubide bat, barneko eta legezko araudi aplikagarria betetzeko.
- ix. Aldizka eredu egiaztatzea eta aldatzea, hura mantentzeko beharrezkoa denean, edo aldaketak gertatzen direnean antolamenduan, kontrol-egituran edo garatutako jardueran.

Eredu horrek bost (5) fase bereizi ditu:

- 1. **Prebentzio**-fasea: MUTUALIari eragiten dioten jokabide penal arriskutsuak identifikatzea, eta arlo horretan aplikatu beharreko kontrolak dauden zehaztea.
- 2. **Detekzio**-fasea: balizko ez-zilegi penalak detektatzea, barneko kanalaren eta dauden beste bitarteko batzuen bidez.
- 3. **Erantzun**-fasea: MUTUALIaren Betetze Batzordearen ikerketa eta izapidetzea, MUTUALIAN delitu bat egin izanaren zantzuen edo susmoen aurrean, kautelazko eta behin betiko neurriak hartzeko proposamena, sor daitezkeen kalteak —ahal den neurrian— ezabatzeko edo arintzeko.
- 4. **Jakinarazpen**-fasea: MUTUALIAko gobernu- eta zuzendaritza-organoei zuzendutako aldizkako komunikazioa eta informazioa.
- 5. **Monitorizazio**-fasea: ereduaren aldizkako ebaluazioa eta hura MUTUALIaren egoeretara eta pertsonen prebentzio penalaren ulermenera egokitzea.

Zigor-arloko araudia behar bezala betetzen dela bermatzeko, MUTUALIAk, Gobernu Korporatibo Onaren Politika Orokorrekin bat etorriz, JARDUTEKO PRINTZIPIO, POLITIKA ETA BARNE-PROZEDURA batzuk onetsi eta ezarri ditu, zeinak Gobernu Korporatiboko Sistemaren parte baitira, eta Arrisku Penalak Prebenitzeko Eredua (*Compliance* penala) osatzen baitute. Horiek dira onartutako barne-arauak —edo, hala badagokio, erakundean etorkizunean onartuko direnak—, kudeaketa etikoa eta araudiaren betetzea bermatzeko eta integritate-sistema, ustelkeriaren aurkakoa eta iruzurraren aurka borrokatzeko sistema bermatu eta arautzeko. Esaterako, hauek:

- GOBERNU KORPORATIBO EGOKIRAKO POLITIKA OROKORRA
- DELITUAK PREBENITZEKO POLITIKA (hau)
- BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMARI ETA INFORMATZAILEAREN BABESARI BURUZKO POLITIKA
- KODE ETIKOA

- JOKABIDE-ARAU OROKOR PROFESIONALAK
- INTERES-GATAZKETARAKO Prebentzioko, Detekzioko eta Kudeaketako Protokolo Orokorra.
- Betetzeko eta Arrisku Penalak Prebenitzeko ESKULIBURUA
- Arrisku Penalen MAPA

3. JARDUERA-EREMUA.

Prebenitu beharreko delituak egin daitezkeen eremuetako jarduerak Mutualiak Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua gisa dituen legezko eskumenen funtzioei eta gauzatzeari dagozkien guztiak dira, bere ondare historikoaren kudeaketa barne.

Zehazki, gaur egungo Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 80. artikulua araberak, MUTUALIAk, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua den aldetik, Gizarte Segurantzaren jardura hauek garatzea du helburu, Gizarte Segurantzaren eskumena duen ministerioarekin lankidetzan:

- a) Gizarte Segurantzako laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen kontingentziak babesten dituzten prestazio ekonomikoak eta osasun-laguntza kudeatzea, errehabilitazioa barne, baita babes-ekintzak ematen dituen kontingentzia berberak prebenitzeko jarduerak ere.
- b) Kontingentzia arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoa kudeatzea.
- c) Haurdunaldiko eta edoskitze naturalaren garaiko arriskuagatiko prestazioak kudeatzea.
- d) Norberaren konturako langileek jardura eteteagatiko prestazio ekonomikoak kudeatzea, V. Tituluan ezarritako baldintzetan.
- e) Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeko prestazioa kudeatzea.
- f) Gizarte Segurantzaren lege dagozkion gainerako jarduerak.

4. HELBURUAK.

Politika honen helburuak, nagusiki, honako hauek dira:

- I. MUTUALIAko pertsona guztiei jakinaraztea haien betebeharra dela honako hau zaintzea: Mutualiaren jardura Gobernu Korporatibo Onaren Politika Orokorrean eta Kode Etikoan ezarritako legeen eta indarreko arauen eta printzipio orokorren eta jarduteko printzipioen errespetuan oinarrituta dagoela, zigor-arloan ezarritakoak zorrotz betetzeko borondate irmoan oinarritutako jarrera bat berretsita.

- II. MUTUALIAREN Prebentzio Penaleko Eredurako esparru orokor bat ezartzea, hura etengabe egokituta arau- eta jurisprudentzia-xedapen berrietara. Ereduak bere baitan biltzen ditu portaera horiek prebenitzeko, detektatzeko eta haiei erantzuteko neurriak, eta haiei lotuta ezartzen diren arriskuak eta kontrolak identifikatzen ditu.
- III. MUTUALIAko gobernu-, partaidetza-, zuzendaritza- eta kontrol-organoei, haien enplegatuei, enpresa elkartuei eta besteren konturako langile babestuei eta atxikitako autonomoei, enpresa hornitzaileei eta administrazio publiko eskudunei ziurtatzea MUTUALIAk betetzen dituela bere jarduera gainbegiratzeko eta kontrolatzeko betebeharrak, eta neurri egokiak ezartzen dituela delituak egiteko arriskua prebenitzeko edo murrizteko, eta, beraz, legez dagokion kontrola egiten dela. Zehazki:
 - a. Indarrean dagoen legediaren, Kode Etikoaren eta gainerako barne-araudien arabera jardutea.
 - b. **Prebentzioaren kultura korporatiboa** sustatzea, legez kontrako edo iruzurrezko egintzak ez onartzea eta etika eta jokabide arduratsuaren printzipioak aplikatzea.
 - c. Une oro, **kontrol-sistema eraginkorrak**, iraunkorrak eta eguneratuak izatea.
 - d. **Barne-arauak eta jarduteko eta erabakiak hartzeko prozedurak** ezartzea, politikaren eraginpean dauden pertsonen kontrolik gabeko erabakitze-ahalmena izan ez dezaten.
 - e. Balizko delituak prebenitzeko edo detektatzeko politika hau aplikatzeko **baliabide eta bitarteko** egokiak bermatzea.
 - f. **Prestakuntza**-jarduera egokiak eta proportzionatuak egitea, behar besteko aldizkakotasunarekin, arlo horretako ezagutzak eguneratzen direla, eta kultura etiko bat, integritatekoa eta Legea betetzekoa garatzen dela bermatzeko.
 - g. Transmititzea politika honen eraginpean dauden pertsona fisiko edo juridiko guztien **erantzukizuna** dela ikuspegi penaletik legez kontrakoak izan daitezkeen jokabideekiko adi egotea. Bereziki, beren kargura langileak edo lantaldeak dituzten pertsonak jokabide ez-zilegi penalak prebenitzeaz arduratuko dira, eta ezarritako organo eta prozesuetara ahalik eta lasterren eta arretarik handienez joko dutela ziurtatuko dute, horiek detektatu bezain laster.

- h. Politika honen eraginpean dauden pertsona guztien **betebeharra** da informazioa ematea delitu, iruzur edo irregulartasun izan daitekeen edozein egitateren berri jakin badute, eta, bereziki, eragiketa bat kapital-zuritzearekin edo legez kanpoko jardueren finantzaketarekin lotuta egon daitekeelako zantzu edo susmorik badute.
- i. **Betetze-kultura bat** transmititzea eta mantentzea, informatzailearen konfidentzialtasun- eta babes-berme zorrotzekin. Kultura horrek eragin penala izan dezaketen ustezko arriskuak edo ez-betetzeak eragin ditzaketen egintzen edo ez-egiteen komunikazioak (barne-informazio kanalaren bidez) erraztuko ditu, prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betetzeaz aintzeko ardura duen Betetze Batzordeak ikertu eta kudea ditzan.
- j. Delituzko egitateak izan daitezkeen egitateak detektatuz gero haiek ahalik eta lasterren **kudeatzea eta ikertzea**, uneoro ikertutako pertsonen eta informatzailearen eskubideak bermatuz, eta informazioa Fiskaltzari berehala bidaltzea, zantzuen arabera egitateak delitu izan daitezkeenean.
- k. **Diziplina-araubidea** aplikatzea, balizko ez-zilegi penalei loturiko barneko ez-betetzeen aurrean, aplikagarri den barneko araudia eta lege-araudia betez.

5. ONESPEN-TAULA ETA BERRIKUSPENAK.

Data	Bertsioa	Onespena
2019/07/09	Edizioa	Zuzendaritza Batzordeak hasierako bertsioa onetsi du
2019/11/05	1. ber.	Zuzendaritza Batzordeak 1. BERRIK. onetsi du, zeinak printzipio eta jarduteko prozedura gisa jasotzen baitu ARRISKU PENALEN MAPA
2021/10/28	2. ber.	POLITIKA honen 1. berrikuspena berrikusi eta onetsi da, Mutualiako Zuzendaritza Batzordearen erabakiz ("Gobernu Korporatiboko Sistemaren parte diren eta Arrisku Penalak Prebenitzeko Eredua osatzen duten dokumentazioa, printzipioak, politikak eta jarduteko prozedurak" atala eguneratu da, honako hauek sartzeko: - Betetzeko eta Arrisku Penalak Prebenitzeko Eskuliburua - Arrisku Penalen Mapa - Debekatutako Jokabideen Katalogoa. Eta DELITU-EGOZPENAK PREBENITZEKO ERREGELAMENDUA ezabatzeko

2022/10/28	3. ber.	POLITIKA honen berrikuspena berrikusi eta onetsi da, Mutualiako Zuzendaritza Batzordearen erabakiz, honetarako: 1. “Gobernu Korporatiboaren Sistemaren parte diren eta Arrisku Penalak Prebenitzeko Eredua osatzen duten dokumentazioa, printzipioak, politikak eta jarduteko prozedurak” atala eguneratzea. Honako hauek sartzeko: Zuzendaritza Batzordeak 2022/05/27an onetsitako INTERES-GATAZKAK PREBENITZEKO, DETEKTATZEKO ETA KUDEATZEKO PROTOKOLO OROKORRA MUTUALIAREN JOKABIDE PROFESIONALARI BURUZKO ARAU OROKORRAK (Zuzendaritza Batzordeak 2022/03/29an onetsiak) Eta honako hau ezabatzeko: DEBEKATUTAKO JOKABIDEEN KATALOGOARI buruzko aipamena (Jokabide Profesionalaren Arau Orokorrek ordeztua) 2. 3. atal berri bat sartzea. Prebenitu behar diren delituak egin daitezkeen jarduera-eremuak Mutualiaren (Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua den aldetik) eginkizunei eta legezko eskumenen egikaritzari –haren ondare historikoaren kudeaketa barne– dagozkionak direla zehazteko EREMUA.
2023/07/10	4. ber.	POLITIKA honen 4. BERRIK. berrikusi eta onetsi da Mutualiako Zuzendaritza Batzordearen erabakiz: 1. Informazio Sistemaren Politikara egokitzea eta Mutualiako informatzailea babestea. Politika hori 2023ko maiatzean onetsi zuen Zuzendaritza Batzordeak, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legea betez (2023/02/21eko BOE). 2. Politika horren EREMUaren deskribapen sistematikoagoa, 2022ko abenduko UNE19601 ziurtagiriari buruzko AENOR auditoretza-txostenaren gomendioaren arabera.



mutualia
